

eskularruak osasun
munduan erabiltzeko
modu egokia

20

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOA

Eskularruak norbera babesteko ekipamendu bat dira. Beren egitekoa, eskuak gai kutsatzaileen eraginetik babestea da, barrera fisiko baten modura jardunez.

ARRISKU ELKARTU NAGUSIAK

Osasun munduan, hauek dira kutsatzaile nagusiak:

- Jatorri biologikoko materiala.
- Zitostatikoak eta bestelako farmako arriskutsuak.
- Produktu kimikoak, oro har.
- Erradiazio ionizatzaileak.

Gainera, eskularruak erabiliz gero, eragozten da kutsadura gurutzatua ere: langilearen eskuen bitartez gertatu ohi diren langilearen eta pazientearen (edo pazienteen) arteko infekzio- eta flora-transmisioak.

PREBENTZIOA

Eskularru mota bakoitzak kutsatzaile mota jakin baten aurrean jarduten du barrera modura (ikus I. taula), eta, beraz, egoera jakin bakoitzean eskularru mota egokia erabili behar da. Kontuan izan behar da, bestalde, gerta litekeela eginkizun baterako diseinatutako eskularruak egokiak ez izatea beste egoera oso antzeko baina berdin-berdina ez den batean.

SENTIKORTASUN BEREZIA DUTEN LANGILEAK

Osasun-arazo bereziak (esate baterako, alergiak) dituzten langileei balorazio mediko bat egingo zaie Laneko Osasun Zerbitzuan (POU), kasu bakoitzean eskularru egokiena zein den erabakitzeko.

ESKULARRUAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

- Neurri egokiko eskularruak erabili. Eskularru estuegiak erabiliz gero, gerta liteke, adibidez, beren isolatzeko gaitasuna ahultzea edo zirkulazioa oztopatzea.
- Eskuak behar bezala garbitu behar dira eskularruak erabili aurretik eta ondoren.
- Zauri bakoitza apositu iragazgaitz batekin babestu behar da eskularruak jantzi aurretik.
- Ez eraman erlojurik, eskumuturrekorrik, eraztunik edo bestelako gauzarik. Sorraraz ditzakete fenomeno alergikoak, eskularruak puska ditzakete eta, gainera, germenak pilatzeko balio izaten dute.
- Puskatzen edo hondatzen diren bakoitzean aldatu eskularruak, eta baita kutsatzailearekin zuzeneko kontaktuan egoten denean ere. Horrelako kasuetan, urarekin garbitu erasandako partea, eta joan Laneko Osasun Zerbitzura (POUra), istripuaren parte ematera.
- Eskularruak aldian-aldian aldatzea komeni da, inolako gorabeherarik ez izanda ere.

ESKULARRU MOTAK, ZEIN ARRISKUTATIK BABESTU NAHI DUGUN KONTU

ARRISKU BIOLOGIKOEN KONTRAKO ESKULARRUAK

Kutsatzaile biologikoen eraginpeko arriskuak

Fluido biologiko kutsatzaileekin ibili behar izaten den lanetan.

- Odola edo bestelako fluido biologikoak eta ehunak manipulatzean.
- Odolarekin edo fluido biologikoekin kutsatutako gauzak, materialak edo gainazalak manipulatzean.
- Gorputzeko ehun, barrunbe edo organoetan sartzea inplikatzan duten prozedura inbaditzaileetan, edo zauri traumatikoak konpontzean (operazio-gela, urgentzietako eremu, kateterismo, angiografia, erditze, zesarea, etab.etan).
- Hondakinak biltzerakoan.

Eskularru mota

Erabilaldi bakarreko eskularru medikoak.

- Fabrikatzaileak ziurtatzen du UNE EN 455-1 araua (pororik ez izatea) eta UNE EN 455-2 araua (ezaugarri fisikoei buruzkoa) betetzen dituztela.
- Baliteke material desberdinez eginak izatea: latex naturalez, biniloz, nitriloz, neoprenoz.
- Esterilizatuak izan behar dute, asepsia eskatzen duen teknika edo prozeduraren batean erabili behar direnean.

Erabiltzeko gomendioak

- Eskuak behar bezala garbitu behar dira eskularruak erabili aurretik eta ondoren.
- Eskularruak aldatzea:
 - Sarri.
 - Paziente desberdinak artatzerakoan.
 - Paziente berari egin beharreko zaintzetan, leku kutsatuago batetik garbiago batera pasatu behar denean.
 - Jarduera edo prozeduraz aldatzean.
 - Zipriztin, haustura edo zulaketaren bat jasaten denean.



ESKULARRU MOTA	HELBURUA	ADIBIDEAK
ESTERILIZATUAK		
Latexezkoak Neoprenozkoak (latexari alergia diotenek)	Asepsia mantentzea barrera naturalak (larruazala, mukosak, etab.) hausten direnean. Asepsia mantentzea prozedura inbaditzaileetan eta bestelako teknika aseptikoetan.	Operazio kirurgikoak. Bide zentralen kateterizazioak. Sendaketak. Maskuriko zundaketa. Kateter zentrala bide periferikotik sartzea. Fistula arteriobenosoak kateterizatu eta erabiltzea.
ESTERILIZATU GABEAK		
Latexezkoak Binilozkoak Nitrilozkoak	Jariakin, fluido, larruazal, mukosa eta material zikin edo kutsatuekiko kontaktu fisikotik babestea, maniobra eta prozedura arriskutsuetan.	Ohean dauden pazienteen higieena. Analisietarako laginak ateratzea. Bide baskular periferikoak erretiratzea. Aho eta faringeko aspirazioak. Kolostomiako poltsa aldatzea. Jariakin, gernu, etab.en manipulazioa. Hondakin biosanitarioekiko kontaktua. Aparatuak eta materialak garbitzea. Hil ondorengo zainketak.

ESKULARRUAK ZITOSTATIKOEN ETA BESTELAKO FARMAKO ARRISKUTSUEK KONTRA

Horien eraginpeko arriskuak

Farmako arriskutsuren batekin kontaktuan egon daitekeela aurreikusten den lanetan:

- Farmaziako prestaketan.
- Garraioan.
- Ematerakoan.
- Hondakinak jasotzerakoan, arropa zikinarekin edo tratatutako pazienteen irazkinekin kontaktuan egotean.
- Isurkinak biltzerakoan.

Eskularru mota

- Latexezko eskularru bikoitz **hautsgabeak**.
- Nitrilozkoak.
- Neoprenozkoak.



Erabiltzeko gomendioak

- Medikamentu zikostatiko eta bestelako farmako arriskutsuei buruzko Protokoloaren gomendioei jarraitzea.
- Eskularruak aldatzea.
 - Beti-beti, ordu erdiro gutxienez.
 - Farmazian, prestaketako kabinatik irtetean.
 - Farmakoak ematerakoan, pazientez aldatzean.
- Hondakin-ontzi egoki eta ondo seinalatuetara bota.
- Bi eskularru-pare erabiltzen direnean, bata mantalaren eskumuturraren azpitik eta bestea gainetik ipini, eskumuturra ondo estaliz. Pare bat bakarra erabiltzen bada, mantalaren eskumuturra estaliz ipiniko da.

ESKULARRUAK PRODUKTU KIMIKOEN KONTRA

Horien eraginpeko arriskuak

Produktu kimikoak manipulatzeko diren lanetan:

- Materiala eta tresneria garbitu eta desinfektatzean.
- Laborategian.
- Anatomia Patologikoan.
- Erradiologian.

Eskularru mota

- Kontuan izan behar da zein produktu kimiko erabiltzen den, zeren ba baliteke material batek (latexak, biniloak, nitriloak, butiloak, neoprenoak, etab.) oso ondo babestea produktu batzuen kontra, eta oso gaizki beste batzuen kontra.
- Fabrikatzaileak emandako produktu kimiko bakoitzaren Segurtasun Datuen Fitxan argi eta garbi adierazia egon behar du zein eskularru mota den egokiena kasu bakoitzean.

Erabiltzeko gomendioak

- Sarri-sarri aldatu eskularruak.
- Hondakin-ontzi egoki batera bota.

ESKULARRUAK ERRADIAZIO IONIZATZAILEEN KONTRA

Horien eraginpeko arriskuak

- Zuzenean erradiazio-sorta baten azpian jarduten den lanetan.

Eskularru mota

- Eskularru beruneztatuak.

Erabiltzeko gomendioak

- Ospitaleko Erradiazioetatik Babesteko Zerbitzuaren jarraibideari segitu.

I. TAULA. ESKULARRU MOTAK, ARRISKUAREN ARABERA.

ARRISKUA	LANA	ESKULARRU MOTA	GOMENDIO OROKORRAK
MATERIAL BIOLOGIKOA	• Odola edo bestelako fluido biologikoak eta ehunak manipulatzean. • Odolarekin edo fluido biologikoekin kutsatutako gauzak, materialak edo gainazalak manipulatzean. • Hondakinak biltzerakoan.	• Latexezkoak. • Binilozkoak. • Nitrilozkoak. • Neoprenozkoak. <i>Asepsia eskatzen duten tekniketan eskularru esterilizatuak erabili behar dira.</i>	• Eraginpean egoteko arriskua dagoenean erabili. • Ezinbesteko denboran erabili. • Eskularruak aldatzea: ● Paziente berarekin, leku kutsatuago batetik garbiago batera aldatzean. ● Jarduera edo prozeduraz aldatzean. ● Pazientez aldatzean.
ZITOSTATIKOAK EDO BESTELAKO FARMAKO ARRISKUTSUAK	• Kabinan (farmazian) prestatzerakoan. • Prestaketako kabina garbitzean (farmazian). • Ematerakoan. • Farmako horiekin tratatutako pazienteen irazkinekin edo arropa zikinekin kontaktuan egotean. • Hondakinak biltzerakoan. • Isurkinak biltzerakoan.	• Latexezkoak (bi pare), hautsgabeak. • Nitrilozkoak. • Neoprenozkoak.	• Ordu erdiro aldatu behar dira eskularruak, eta pazientez aldatzen denean eta prestaketako kabinatik irteten den bakoitzean ere bai. • Hondakin-ontzi egoki eta ondo seinalatuetara bota. • Mantalaren eskumuturra eskularruekin estali behar da (bi pare erabiltzen direnean, azpiko eskularruak mantalaren eskumuturraren azpitik jarri). • “Medikamentu Zitostatikoen eta Bestelako Farmako Arriskutsuen Protokoloa”-ren jarraibideei segitu.
PRODUKTU KIMIKOAK	• Laborategia, Anatomia Patologikoa, Erradiologia, etab. bezalako zerbitzuetan.	• Produktu motaren arabera.	• Sarri aldatu eskularruak.
ERRADIAZIO IONIZATZAILEA	• Erradiazio sortaren pean lan egitean.	• Eskularru beruneztatuak.	• Ospitaleko Erradiazioetatik Babesteko Zerbitzuaren jarraibideari segitu.